

10/

- CAMINOS DE HOSPITALIDAD

11

Aurrera jarraitzen dugu

harrera- eta inklusio-gizartea

ESKATZEKO.

ARGAZKIA © SERGI CÁMARA

bideak.hospitalidad.es

HOSPITALIDAD.ES

Zoritzarrez, pandemia globalak migratzaileen eta errefuxiatuen ahultasun-egoera larriagotu dezake, baina, aldi berean, gobernu-erakundeek babes-sistemak indartu eta handitu behar dituzte, giza eskubideak betetzen direla bermatzeaz gain. Europako ordezkari politikoei 10 ESKARI egiten dizkiegu:

- 01** Kanpamenduetan eta atxilotze-zentroetan pilatutako biztanleak COVID-19aren gaixotasunaren mehatxutik **BABESTEA**.
- 02** Europar Batasunean, Migrazioaren eta Asiloaren Europako Ituna deiturikoa osatzen duen arau-esparru berria Europako herrialdeen arteko benetako elkartasunean eta Giza Eskubideekiko eta Batasunaren balioekiko oinarritu dadila **DEFENDATZEA**.
- 03** Europar Batasunean asiloa eskatzeko eskubidea eta prozesu osoan giza eskubideak betetzen direla eraginkortasunez **BERMATZEA**, bereziki kontuan hartuta egoera ahulenean egon daitezkeen pertsonak.
- 04** Migrazio-praktika errepresiboei **AMAIERA EMATEA**; hala nola, migratzaileak atxilotzeari, barneratzeari eta itzulketa sumarioei, lurraldean nahiz lurreko eta itsasoko mugetan.
- 05** Iristen diren pertsonen eta nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera-sistemak **ZABALTZEA**, behar adina plaza eta gutxieneko duintasun-baldintzak bermatuz.
- 06** Bizileku- eta/edo lan-baimenak berritzeko eta lortzeko baldintzak eta prozedurak **MALGUTZEA**, bat-batean sortutako irregulartasunari aurre egiteko eta gizarteratzea eta aukera-berdintasuna sustatzeko, batik bat COVID-19aren ondorengo testuinguruan.
- 07** Sartzeko eta egoteko bide seguruak eta legezkoak **EZARTZEA** eta birkokatze-prozesuak, bisa humanitarioak eta familia berrelkartzea **BULTZATZEA**.
- 08** Integrazioa **SUSTATZEA**, kultura desberdinen aberastasunak aintzatesten eta baloratzen dituen bi norabideko prozesu gisa, eta benetako herritartasun globala eratzen laguntzea, derrigorrezko migrazioen eta babeslekuaren kausak ezagutzen dituen eta elkartasunarekin, Giza Eskubideekin eta abegi onaren kultura eraikitzearekin konprometitua.
- 09** Mugak zeharkatzen dituzten pertsonen **BIZITZAK SALBATZEA** eta haien eskubideen alde borrokatzen duten erakunde humanitarioak eta pertsona defendatzaileak **DEFENDATZEA**.
- 10** Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren **INDARTZEA** eta, horretarako, Errenta Nazional Gordinaren %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) bideratzea eta Laguntza Humanitarioaren GLOren %10 eta Laguntza Humanitarioaren %6 testuinguru horietako hezkuntzara bideratzea, herrialde eta egoera guztietan haur eta nerabe errefuxiatu eta migratzaileei kalitateko hezkuntza izateko eskubidea bermatzeko.

#NireBideaBatzenDut